Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Arantxa Gurmendi Olabiaga

Donostia, Gipuzkoa (1944-2023)



Aurkibidea

Biografia



Parte Zaharrean jaiotako aktorea. Gurasoak donostiarrak zituen. Aitak aparatu elektronikoak konpontzen zituen, eta zinema aretoetako filmen banaketaz ere arduratzen zen. Amak antzerkia egin zuen gaztetan. Arantxa-eta bost senide ziren. Elbira Zipitria izan zuen andereño, isilpeko ikastolan. Jarrai antzerki taldean ibili zen gaztetan, Ez Dok Amairu taldeko dinamizatzaileetako bat izan zen eta baita Bihurriak rock taldeko partaide ere. Batez ere turismo gidari gisa egin du lana. Frantzian egon zen errefuxiatuta urte batzuetan. Bueltan, Antzerki eskolan ikasi zuen. Antzerkian, telebistan eta zineman jardun du aktore lanetan. Goenkale telesailean aktore zuzendari ere izan da. Gainera, hainbat dokumental zuzendu ditu. Ezkonduta dago eta seme bat daukate.

Zintak

DON-126

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2010-07-20
- **Iraupena**: 78 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia

DON-127

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2010-07-20
- **Iraupena**: 76 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Lizeaga, Irati

Pasarteak

1. Donostiar peto-petoa

- **Erref**: DON-126/003
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:01:06. **Bukatu**: 00:03:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Donostian jaio zen, Kanpandegi kalean. Euskara nahastua duela dio. Gutxien aldatu den kaleetako bat da. Etxebizitzak zeuden lehen ere, negoziorik ez. Guraso biak donostiarrak, ama Parte Zaharrekoa eta aita erdialdekoa. Bost senide.

2. Aitaren lanbidea; zinema aretoa etxean

- **Erref**: DON-126/005
- **Iraupena**: 0:04:54. **Hasi**: 00:03:06. **Bukatu**: 00:08:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Aisia » Kultura » Zinema
- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:
Amak aitari laguntzen zion tailerrean; irratiak konpontzen zituen. Parrokiako zinema aretoak hornitzen zituen. Segura irratiko lehen emisorea egin zuen. Herri Irratia. Etxean ikusten zituzten binilozko filmak. Mojen zentsura. Ikastola. Orduko pelikulak.

Transkripzioa
Nere, nere aita... Nere amak etxeko lanak, eta aitari laguntzen zion. Taillerra zeukan; e... konpontzen zitun irratiak eta, e, bueno, garai hartan zeuden tresna gutxik. Ez zeuden asko, ez? Ez da oain bezela. Baiño telebisiyoak hasi zianean... Zinea ere hasi zun berak hemen, Gipuzkoa maillan zine, zine parrokialak hornitzen. Pues e... kama... proiektoreak eta saltzen zitun, jartzen zieten martxan parrokia ezberdinetako... zine parrokialak; ordun zine parrokiala zan herri guztietan sortu zana. E, gero baita ere irratia egin zien /egintzien/ Segura irratikoei. Segura irratiko lehendabiziko emisio, emisorea nere aitaren taillerrean egin zun; Donostian zeukan taillerra, Prim kalean. Prim kalean ez, e, San Martin kalean. Eta berak egin zun, baiñan zuloz zulo! “O sea” tresna guztiak sartzeko ta dana eskuz, zeatikan garai hartan ez zian, ez zan /etzan/ etortzen prefabrikatutako... aparatuak, ez? Irratiak pai, baiño gero hoi dana asko aldatu da, ta asko hobetu da, ez? E, baiña garai hartan bai, ba berrikuntza ikaragarria izan zan /izantzan/ Loiyolan... Bueno, Seguran irrati bat jartzea. Hori izan zan /izantzan/ hasieran irrati parrokiala, eta hortik abiatuta gero ba Segurako irratiaren ondoren “pues” e Azpeitiko beste irratia, ta Herri Irratia ta… bueno, baiña bai, bea teknikari ona omen zan /omentzan/ eta bueno, bai zekan berexitasun bat e… guk txikitan asko disfrutatu deuna,

eta izan da: nola beak antolatzen zitun, e, parrokietako zinea emateko aparatuak eta, baita´re lortu zun edukitzea representazioa-edo pelikulak... e, distribuzioa egiteko. Uzteko, ez? Alkilerra. Eta ordun gure etxera iristen zian pelikula guztiak, e... Jaso ondoren, emanaldi bat in ondoren jasotzen zitunian, ikusi in behar zitulako ea modu onean itzuli zuten pelikula. Puskatu gabe eta... oso errez puskatzen zian e biniloko pelikulak garai hartan. Eta ordun, e, guk etxean aparatua genun, e... proiektore bat, hamasei milimetroko proiektorea, eta ordun, e, auzoko gure lagun guztiak etortzen zian /etortzentzian/ etxera eta lurren exerita danok ikusten genun pelikula. Orduan... Edozein motatako pelikulak ikusten genitun, ez zitun... nere aitak eta amak inoiz ez dute zentsuratu ezer... “o sea”, muxuk ez muxuk... zeatikan monjen-ta konbentuetan eskua jartzen zuten muxuak zetozenian. Aurretik ikusten zuten pelikula, eta geo emanaldiya iten zutenian eskolako... bueno ba neskantzat edo auzokoentzat beti eskua jartzen zuten pan... e, proiektorean, ez ikusteko, ez? Bueno, ba gure etxian ez zan zentsurarikan. Gurasuak esaten zuten onena zala denetik ikustea, eta gero aukeratzea, eta eta ikuspuntu bat izatea. Baiño etortzen zian gure lagun guztiak, auzokoak, eskolakoak, ikastolakoak... gu ikastola juten giñen, Elbira Zipitriaren ikastolara. Eta exeri eta guretzako zan hori... “Cine”... Ez, “cine de barrio” ez, guk genun etxeko zinea. Eta kasu batzutan, bazeuden bi o hiru pelikula eukitzen zitunak aitak han, kopiak izango zian edo, eta: bat zan "Marcopolo", bestea... hola, bazeuden bi o hiru, hola, buruz genizkigun. Danak. Hainbeste aldiz ikusi genitun... testu guztiak eta danak errepikatzen genitun, personaje guztiaren, trama dana genun... bakoitzak ze esango zun: “La princesa Cucachinda, no sé que...”. Ta hola. Geo, oain, oraindik batzutan ikusten det garai hartan, umea zan mutil bat; apaiza izana da o izan da o da, ez dakit oain segitzen dun... Pentsa, zenbat urte pasa dian, eta beti esaten dit /esateit/: “Ai, cómo me acuerdo del... de los cines de tu casa!”. Bai, ba zan e... ba oso berexia. Ez zeon telebistarik, “o sea que” pentsa. Eta bueno, ba nere aitan profesio horrekin berak asko disfrutatzen zun, eta nik uste det /ustet/ jendeari ere asko disfrutarazi diola. Bai.

3. Elbira Zipitriarekin, isilpeko ikastolan

- **Erref**: DON-126/006
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:08:00. **Bukatu**: 00:10:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Amak aitari laguntzen zion tailerrean. Autonomoak izaten erakutsi zieten. Askatasun handiarekin hezi zituzten. Elbira Zipitria amaren irakaslea izan zen Muñoaren eskolan; gerratik bueltan, isilpeko ikastola sortu zuen Zipitriak. Hantxe ibili ziren.

Transkripzioa
-Ta amak lagundu egiten zion.
-Amak lagundu iten zion?
-Bai, bai. Juten zan taillerrea laguntzea lan asko zaukanian ta horrela ba bai, soldadurak egiten ta, ikasi zun nere amak ere bai, eta. Bueno gu bost

giñen, bost ume, bost seme-alaba, gaiñea oso jarraituak, ez? Baiña, bueno oso, betidanik erakutsi zigun bueno, autonomok izaten, responsablek izaten, ta bueno, etxen eoten giñan, gu gure kabuz, gauzak egiten genitun ta hola, bueno bakoitza bere maillan, ez? Adiñan arabera baiño, eta egia da askatasun haundiarekin hezi gintuztela. Eta bueno ba utzi zigutela bakoitzari ba gure, gure istilluetan sartzen edo, bai.
-Kontatu dezu Elbira Zipitrian eh, ikastolan?
-Bai.
-Gerra aurretik, zure ama bera ere Muñoaren ikastolan...?
-Muñoaren ikastolan ibillia zan, bai. Bai.
-Ibillia zan? Eta, Elbirakin, ala?
-Elbira berak izan zun irakasle bezela. Baiñan ez dakit eh, Muñoaren eskolan, baiñon gero, gerra ondoren, Elbira Zipitria itzuli zanian Frantziatik, Frantziara ihes ein zuten, zenbait pertsonak-eta, hoin artean berak ere, eta itzuli zanean jarri zun martxan lehendabiziko ikastola klandestinoa. Baiño, bueno, euskeraz irakasteko ta, ta bueno ba gure familia, euskalzaleak zien eta bueno, ba, mundu hortako jendea, erabaki zun, ba haurrak horrea eramatea. Eta, gure lehenbiziko eskola, bai nerea, nere bigarren, ni baiño zaharrago anaia daukat, beraz anai hura, ni eta hurrengo nere ahizpa, hirurok ibilli giñan Elbira Zipitrian ikastolan. Oain, gero beste bi seme, anai gazteagoak ya Karmele Esnalekin ibilli zian. Baiñon bai, Elbirarekin hamar urte arte.
-Hamar urte?
-Hamar urte arte.

4. Zipitriaren ikastolako heziketa sistema

- **Erref**: DON-126/007
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:10:17. **Bukatu**: 00:13:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Elbira Zipitriaren etxera joaten zen ikastolara (Fermin Calbeton 26). Isilpeko ikastolako heziketa, Zipitriaren metodologia. Lurrean eserita, gela batean, adin ezberdinetakoak. Irteerak Gaztelura. Ezin zuten esan nora zihoazen; "señorita de compañia" modukoa. Gurasoen kemena.

Transkripzioa
- Zer ikasten zenuten?
- Ba, beira, heziketa, nik, egia esan, garai hartan, pues, ez nekin, gutxi asko jakingo nun, umea nitzan; baiñan geroztik jakin dudanez, Elbirak oso sistema modernoa erabiltzen zun, nunbait. Ba, Frantzian ere egon zenian, bertan seguruena hemen baiño hezkuntza aurreragokoa, sistema aurreragokoak izango zituzten, hobeak, eta berak ikasi zitun eta gero hemen praktikan jarri zitun. Ordun, guk eskola egiten genun denok batera, etxe txiki batean, hemen, Alde Zaharrean, hola, gela batean, lurrean eserita danak eta, bueno, adin ezberdinetakoak. Baiñon berak gero bazekin nori zer erakutsi behar zion adinen arabera eta, nahiz eta eskolan danak elkarrekin egon, oso bakoitzari zuzendutako hezkuntza egiten zun. Eta, bueno, gero genun mahai bat altxa ta jetsi iten zan mahai bat, ze

tokirik ez zeon ia, lurrean eseritzen giñan eta dana betetzen genun. Mahai bat, eta han hasten giñenian idazten, ikasi behar zanian, han iten gendun. Eta guk, auzo maillan, ba, ez genun esaten nora juten giñen ikastolara. Nolabait bazeon hor diziplina bat, ezin zan aireztatu zer zan hura, ez? Gehio azaltzen zan, ba, señorita konpaiñia bat bezela balitz edo, zeatikan asko eramaten gintun zeara... [...] gaztelura juten giñan jolastea, ta landariak aztertzea eta holako gauza asko iten genitun, ez? Irteerak. Baiñon beti zan paseatzera emango bagintu bezela. Ez? Klaro, euskeraz hitz egiten genun berekin, ta garai hartan ere, ba... ezin zan asko aireztatu euskera hitz egiten zenula. Ta umetan, pues, oso diziplinatuak geunden alde horretatik. Bai. Baiño, bueno, nik uste det polita izan zala, ba, hori, batez ere gerora, ba... bueno, eta batez ere gure gurasoak, ba, zeukatelako... konziente zirala euskera ikasi behar genula eta jarraitu behar zala euskera zabaltzen. Ez? Hori´re, nik uste det merito handia izan zutela guraso hoiek. Arriskatu egiten ziren.
- Jakin gabe gero zer etorriko zen.
- Hori da. Ez da oain bezela. Oain da... ume guztiak ikastolara juten dia, baiña hori ofiziala da eta dana errexa da. Baiña, klaro, kondizio hoietan apostua egitea, umeak horrela eraman ikastola batera eta, gaiñera, erdi-ezkutuan, eta, gaiñera, konfiantza izan ume hoiek ez zutela salatuko edo bazekitela zer egin. Ez? Nik uste det merito handia izan zutela.

5. Hamar urterekin, ikastolatik mojetara

- **Erref**: DON-126/008
- **Iraupena**: 0:04:36. **Hasi**: 00:13:30. **Bukatu**: 00:18:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:
Zipitriaren metodologia. Txotxak, pottokak. Ondo prestatuta zeuden, gero beste ikastetxe batzuetara joateko 10 urterekin. Moja teresiarretara joan zen bera. Gaztelania ere ikasten zuten. Mojetako heziketa hertsia: gimnasia, pololoekin; Eskola frantsesetan galtza motzak jartzen zituzten neskek. Zigortuta, begiratzeagatik. Frantzia pasealekuan zegoen ikastetxea.

Transkripzioa
- Metodologia horren barruan, Elbira Zipitriaren metodologia, txotxak erabiltzea eta pottokak eta...
- Bai, bai, baiño nik uste det hori dana... nik ez dakit, nik ez det sartu nahi ondo esaten [deten edo ez], baiño [Frenet] edo holako metodologia batzuk bazeuden Frantzian, modernoak zienak, beste eskolatan hemen erabiltzen ez zianak, eta berak praktikan jartzen zitun. Bai. Eta oso... eta resultado onakin, zeatikan gero hamar urtekin jun behar genun beste eskola ofizial batea, ze bestela ez genun iñolako agiririk ikastolan, eskolan ibili giñenik. Eta ni gogoratzen naiz, ba, ni, por ejenplo, teresianataa jun nitzan. Mojak zien. Moja... ez zian uniformeakin juten, seglarrez jantzita juten zien, baiño monjak zien. Eta ez genun iñolako arazorik izaten hamar urtekoen maillan sartzeko. Ez genun... heziketa aldetik ez genun diferentziarik. Beraz, saiatzen zan Elbira bai euskeraz ematen klaseak-eta euskera ikasi zezagun

eta baita ere gaztelera nahiko ikasi zezagun, gero hurrengo mailletan ez poto iteko. Ez? Eta nik uste det alde horretatik oso interesgarria. Nik ordun pensatzen det ez nintzela konturatuko, baiña geroztik begiratuta, oso esperientzia interesantia zan. Bi hizkuntzetako umeak giñen, hezkuntza ireki batekin. Nik uste det badula bere... Bueno, oain ikastolak´e hala dia, ez? Baiño, karo, oain ya hori instituzioak jartzen duten zerbait da eta iñork ez du arriskurik hartzen. Baiño ordun bai.
- Zuek ondo preparatuta joaten zinaten, baina diferentzia hezkuntza aldetik igarriko zenuten, ezta? Ikasteko modua eta bakoitza bere mahaian jarri beharra , erderaz dana...
- Bai, bai. Eta, bueno, gero, ba, hori, monjak monjak dia. Nik ez dakit oain nola izango dian, baiño ordun nahiz eta modernanak izan, [ni jun nitzana aukeratutakoa], mojak zian. Zeatikan guk gimnasia egiteko erabiltzen genitun pololo batzuk honaiño, gero gona, eta, total, hola iteko; osea, lau salto besteik ez. Eta gure juxtu ikastola zeon, eskola zeon aldamenean zeon eskola frantsesa eta guretzako zan hua bua! Hoi bai diela... ze ondo, mutillak eta neskak! Eta, gaiñea gimnasia egiteko galtza motxakin. Eta jartzen zituzten... Bueno, gu begiratzen egoten giñen, ze gimnasioa ikusten genun kanpotik, kaletik. Eta begiratzen egoten giñen eta bua! “salto de potro”-ta iten zuten. Eta eskaillera batzutan gora ta gero zintzilikatu ta “jooo! ze gimnasia egiten duten!”. Zigortu egiten gintuzten monjak.
- Zergatik, begira egotearren?
- Begira... harrapatzen [bazintuzten] begiratzen, hartu ta benga, zigortuta. Pekatu hutsa. Hura pekatua zan. Han begiratzea pekatua. Bai. Kuriosoa zan. Eta hori ikusten dezu, esaten dezu “jo!”. Bai. Nere gurasoak aukeratu zuten, moja hoiek aukeratu zituzten modernanak zialako, kalez jantzita juten zialako. Baiño “puu!” mojak zien.
- Hori non zeon?
- Paseo de Francian. Paseo Frantzian. Oain , oain ere... eskola frantses [hare] ez dakit, ez dao ya. Hor zeon konsulado frantsesa eta eskola frantsesa. Villa hoietako... villak zian. Eta beste bat zan teresianak. Eta, bueno, teresianak [reto] guztiakin, ez? Beloa txuria honaiño, ez dakit urtian ez dakit zenbat aldiz prozesiyota jun eta prozesiyotan ensaiatu in behar zan aurretik prozesiyua ta buooo! rollo bat. Bai. Alde hortatik bai zan aldaketa. Beste eskola zan askoz irekiagoa, naturarekin lotuta, mendian, Urgullen, ez dakit, ibaia ikustea arrantzaliak mollara... Beste sistema bat, ez? Ta mojak, berriz dana benga, benga, benga.

6. Mojetan, dena erdaraz; beldurra eta ausardia

- **Erref**: DON-126/009
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:18:06. **Bukatu**: 00:21:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Teresiarretan uniforme berdea zuten: "vespak" deitzen zieten. Ezin euskaraz egin. Gerora jakin zuen ikaskide batzuek euskaldunak zirela (Arantxa Urretabizkaia). Ikastolako lagunek talde itxia osatzen zuten. Beldurra eta ausardia.

Transkripzioa
- Uniformea. Uniformeakin eta, gaiñera, deitzen ziguten “las vespas”. Zeatik garai... urte haietan modan jarri zian motorrak, vespak. Berdeak zian. Eta gure uniformea berdea zan. Osea, gona eskozesa eta alkandora berdea. Eta ordun modan jarri zan esatia “las vespas”. Hala deitzen ziguten. Jendeak hala deitzen zigun.
- Eta euskeraz ezingo zenuten egin.
- Ez. Ez. Nik lagun asko ezagutu nitunak umetan geroztik jakin det euskeraz zekitela. Bakarrik han hitz egiten genuen euskeraz konfiantzazko jendearekin edo aurretik ezagutzen [genunekin]. Horregatik pixkat ghettoa ere bazan, zeatikan guk Alde Zaharrean talde bat genun, bai guraso eta bai ume, eta beti elkarrekin. Bai ikastolan eta gero, juergan ere bai eta jolasten ere bai. Auzoko lagunak giñen. Ba, hori, bilatzen zan nolabait zirkulo bat nun euskeraz hitz egiteko zirkuloa. Ez? Eta gero hemendik kanpoa ateratzen ziñanian, ba, ez zenun jendia ezautzen ta, orduan, ezautzen ez zenunakin konfiantzarik ez zeon. Eta nik jende bat, pues, Arantxa Urretabizkaia ta holako jendea, jakin det euskeraz zekitela ya helduak giñenian. Osea, helduak, bueno, pues, adoleszenteak edo behintzat... igual hogei urtekin. Edo hamabost urtekin.
- Berak ere berdin.
- Eta berak ere berdin! Bai, bai. Eta nerekin eskolan ibiltako batzuk —ez ikastolan, baizik gero mojetan—, ba, ezta ideiik ere euskaldunak zirenik edo ez. Eske hori ez zan aipatzen ere. Ezkutatu egiten zan eta kito. Oaindik jendeak, batez ere gurasoak-eta, oso gogoan zuten gerra denbora ta gerran gertatutako gauzak eta gutxi o asko, ba, batak edo besteak sufritutako gauzak. Beldurra zeon. Eta gu beldur horrekin hezi gintuzten. Beldurra alde batetik, baiño beste aldetik ausardia, ez? Nik askotan, pentsatzen badezu, esaten dezu: “Bai, baiñan gainditu egiten zuten beldurra”. Zeatikan, azken fiñian, transmititu digute balore batzuk eta gauza batzuk, ba, normalean, horrelako egoera batean tapatuta geratuko zianak edo anulatuta.
- Ez dala egon etenik, ezta?
- Ez, ez da egon.
- Ixilpean baina...
- Ixilpean eta bueno... eta bueno... Gaiñera, nolabait ere kuriosoa da, haurrak izanda, sartzea zirkulo hortan eta kapazak bihurtzea umeak hori aurrera eramateko kapazidade horrekin. Ez dakit, hori, nik uste det, gurasoen eta irakasleen, ba, andereñoen-eta lana izan dala. Ez? Baiña... Bai. Nik uste det hori... Bueno, norbaitek aztertuko du ni baiño jantziagoa danak, baiño bai, neri iruditzen zait, esperientzia pertsonala bezela, ona izan dala.

7. Etxeko giro alaia: kantua, dantza, antzerkia...

- **Erref**: DON-126/010
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:21:46. **Bukatu**: 00:24:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Giro euskaltzalea etxean, antzerkirako eta kanturako zaletasuna. Zinema, dantza. Oso umoretsuak ziren gurasoak. Aitak pailazoarena egiten zuen, gaixotzen zirenean. 15 urterekin hasi zen euskal dantzetan.

Transkripzioa
- Zuk etxean giro euskaltzalea eukitzeaz gainera, antzerkizalea ere bai.
- Bai.
- Kantuzalea…
- Baita ere. Bai, bai.
- Eta zuk… Bueno, ama ibili zen antzerkia egiten.
- Baita ere. Bai. Etxian, etxian izugarrizko zaletasuna zeon edozein… bueno, nere aita eta nere ama beti pasatzen zuten eguna kantari. Kantari. Opera guztiak zekizkiten; duoak egiten, batak andreana, besteak gizonana. Gero baita ere zinea ere oso barruan genun. Bizitzen zian gauza hoiek dantzan. Nere amak dantzan bazekin, nere aitak ez. Baiñan betidanik jolasak izan dia dibertigarriak, oso umoretsuak, nere etxian. Ez? Osea, kantatu, dantza in… oso ondo ikusia zeon gauza. Bultzatu egiten zuten hori. Beraiei gustatzen zitzaien eta guri ere bai. Eta gu ere, pues, bueno, beti oso… Bueno, gero mutillak ez dia hain zaleak izan, dantzazaleak eta hola, baiña nere ahizpa eta ni bai. Salserak izan gea. Bai. Eta jarraitu deu, ba, bai, bastante gertutik eta segitu deu afizio horrekin. Nere aitak, por ejenplo, oso serioa ematen zun, baiño geo gu gaixo geundenian pailazoa bera zan etxian ta izugarrizko parraguriak sartzen zizkigun. Eta, gaiñera, oso ondo egiten zun. Oain konturatzen naiz ni, baiño… Bera normalian eta gizarte… gizarte barruan serioa zan eta oso pertsona… hola, baiño etxean gurekin jostalaria. Izugarri jostatzen zan, izugarri, eta beti, ba, irrifar bat nola atera ibiltzen zan. Ez? Eta nik uste det komediante xamarra zala. Ez ofizialki, baiñon bai, bai, berez bai.
- Orduan, bi aldetatik.
- Bi aldetatik. Bai. Eta, bueno, ni ,normala dan bezela, pues, bai, ni oso… hamabost urtekin-o hasi nintzen dantzan, euskal dantzetan ta hola.

8. Izarti dantza taldean; turismo bulegoan lanean

- **Erref**: DON-126/012
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:24:15. **Bukatu**: 00:27:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Aisia » Kultura » Dantza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
Sekretaritza ikasi zuen, emakumeentzat zen akademia batean. Bertako euskal dantza taldea, Izarti, Maria Elena Arizmendirekin. Emanaldiak. 17-18 urterekin hasi zen lanean, turismo bulegoan, uniformearekin.

Transkripzioa
- Ni lehenbizi, osea, ikasten neon tokin, hasi nintzenean ikasten “secretariado” , sekretaria izateko hola, emakumeen akademia bat zan, neskantzako.
- Ategorrieta…?

- Ez, Donostin. Eta... nola deitzen da? E...
- [...]?
- Ez, ez, oin... ai, jesus! Izenak ahazten zaizkit. Ez, kale... zentro aldian zeon. Zan emakumeentzako. Ta oain esisititzen da oraindik, e! Ez zait burura etorriko, ba! Bueno, berdin dio. Ba, bertan dantza talde bat osatu zan Maria Elena Arizmendirekin. Nik geroztik jakin det oso ilustrea zala. Ordun, ba, emakume oso dotorea, oso dantzari ona eta fama zeukan dantzan ibili zala Europan ta horrela. Eta harek talde bat sortu zun. Alde batetik, balleta dantzatzen genun eta balleta iten genun, ariketak eta puntetan ta holako gauzak, baiña baita ere sortu zun taldetxo bat euskal dantzak egiteko. Izardi dantza taldea. Izar-ti. Izarti dantza taldea. Eta horrekin, ba, hasi giñan emanaldiak egiten batea ta bestea. Eta nik hor eukiko nitun hamabost urte edo hasi nintzanian. Eta gero...
- Hori ez zan klandestinoa...?
- Ez.
- Emanaldiak-eta egoten bazian...
- Ez. Hori ya...
- Folklore ikuspuntutik hartzen zan?
- Bai. Bai. Eta, gaiñera, nik ya hamabost urte banitun, pentsa, ya zian... urteak aurrera zihoazten. Osea, gauzak aldatzen ere hasi zian pixkanaka, ez? Eta gero, hortikan aurrea, ba, ni gazte hasi nintzen lanean, hemezortzi urtekin, hamazazpi-hemezortzi urtekin hasi nitzan lanean, zean, “Información y Turismo” bulegoan, turistei mapak erakusten ta [nola] jun ta... informazioa. Victoria Eugenian zegoenian oaindik. Eta han egoten giñan. Nere lehenengo lana hori izan zan. Azafata bezela, uniforme eta guzti. Uf! Oso ondo, oso gustora. Uniformeakin lana itia oso polita da. Batzuk esaten dute: “Buaa uniformatua, danak berdin ta...”. Uuu... ez dakizu ze komodidadea dauken. Zu han zoaz zure bakeroekin eta zure ez dakit zer eta dana kendu, jarri txukun-txukun, “con sombrerito y todo” ta... Ta gero, berriz, hondartzara ba...

9. 'Jarrai' antzerki-taldean nola hasi zen

- **Erref**: DON-126/013
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:27:20. **Bukatu**: 00:30:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Turismo bulegoan zebilela ezagutu zituen Jarrai antzerki-taldekoak; laguntza eske joan ziren. Santo Tomasetan emanaldia. Iñaki Beobide. Nola hasi zen taldean, Ramon Saizarbitoriarekin batera. Taldekideak.

Transkripzioa
- Ta hor neola, etorri zian `Jarrai´ taldekoak, Beobide ta hauek. Ba, nik pentsa... ordun e...
- Martxan zeon zu hasi ziñanian?
- Bai, bai, beraiek ya taldea osatuta zeukaten, `Jarrai´ taldea, `Jarrai´ antzerki taldea, lehenagotik. Ni baiñon zaharragoak dira. Sortuta zeukaten... Hasieran sortu zuten teatro irakurria egiteko. Eta egiten zuten talde txikietan, irakurri eta hola. Baiñon ya pausoa ematen hasi zian

eszenatokira, eszenatokian representatzeko obrak euskeraz. Eta, bueno, Santo Tomasetan beti. Hasi zian Santo Tomasean egiten antzerkia Printzipal Antzoki Nagusian. Ez, Antzoki Zaharrean. Eta, ba, ni han lanian nengoela etorri zian bi ordezkari taldekoak, Beobide eta bestia Etxebeste. Etxebeste ez... jo, izenakin nabil...! Bueno, etorri zian, ba, diru eske. Karo, [zeatetikan] antolatzen zituzten jaiak eta horrela, bultzatzen zituzten, eta dirulaguntzak han ematen zituzten eta horta etorri zian. Zai zeuden bitartean, ba, berriketan “con la azafata”. Ta hola, hizketan ta hizketan ta ez dakit zer ta badakit zer ta “antzerkiya egitea guaz” ta “antzerkiya euskeraz” ta “zu euskalduna zea ta zeatik ez dezu iten antzerkiya euskeraz gurekin” ta ez dakit zer. Hori. Badakizu. Gaztiak batzuk eta beste ta... ala! Ta “Zergatik ez?” ta ordun horrela. Horrela. Esan nion: “Bueno, ba, ez dakit, igual. Nere amak ere in du ta zeatik ez? Animatuko naiz”. Ta, bueno, jun nitzan taldera ta oso ondo, oso ondo hartu ninduten. Ramon Saizarbitoria ere aldi berean sartu zan eta hola, ta ordun, ba, zenbait obratan izan giñan “la pareja...” betiko zea. Gu giñen gazteago, besteak ya zian helduagoak. Ordun, petrsonajiak-eta, pues, hori. Eta urte dexente egin genitun. Eta obra asko. Eta oso onak.
- Zeintzuk zineten taldean?
- Ba, Aristi, Joxe Mari Aristi, Karmele Esnal, e... nola da beste bat oiartzuarra? Nekane, Miren... Bueno, ez dakit, hor bazeon talde bat lehendikan zeudenak, gurekin sartu zian gero ere bai beste gazte batzuk... Jun-etorriak izan zian ere, e! Jun-etorriak.

10. Antzezlanak itzultzeko, apaizen laguntza; 35 talde Gipuzkoan

- **Erref**: DON-126/014
- **Iraupena**: 0:03:31. **Hasi**: 00:30:29. **Bukatu**: 00:34:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
1969an desegin zen Jarrai antzerki taldea. Obra asko antzeztu zituzten, aurretik apaizen laguntzarekin itzulita. Apaizak kultur eragile. Sotanarik ez zuten erabiltzen. Beste antzerki-talde batzuk bultzatu zituzten: 35 talde zeuden Gipuzkoan.

Transkripzioa
- Taldeak iraun zun 69 arte edo horrela. Gero desegin egin zan. Baiño tarte horretan obra pillo bat jarri genituen martxan. Gaiñera, ez bakarrikan obrak antzeztu, aurretik lan haundia egiten zan obrak itzultzea, itzultzeko lanetan. Ta hori apaizek. Apaiz asko zeuden euskeraz... gehien menderatzen zuten apaizak. Apaiz asko zeon garai hartan. Mutillen artian apaiz izatera juten zian asko. Modu bat zan herrietatik eta basarrietatik atera eta ikasteko. Eta, bueno, ba, gero apaiz hoiek bihurtzen zian kultura eragilleak. Zeatikan euskera Arantzazun eta ez dakit nun eta ikasten zuten eta itzultzeko ere, ba, erreztasun gehiago zeukaten. Eta inplikatuta zeuden. Dexente. Gaiñera, garai hartan kendu zieten sotana. Eta ya ez genekigun, neskak ez genekigun zein zian mutillak libre zeudenak o ez

zeudenak, zeatikan kalez jantzita juten zian. Ta gero, derrepente esaten [zuten]: “baiño ni apaiza naiz”, “apaiza?”. Ez zekaten, txaparik ez zuten eamaten ta, jo, [esateko moduan] “hemen danak apaizak die edo ze?”. Bai. Eta itzultzen zien obrak, geo representatzen genitun eta baita ere Jarrai taldearen ekintzetako bat izan zan bultzatzea antzerki-talde desberdinak herri askotan, herri ezberdinetan; sortzea bertako taldeak. Baiño, klaro, hoiei ere lagundu behar zitzaien eta materiala pasa. Ta, ordun, itzultzen zian obrak eta guk Donostin aurkezten genitunak, ba, Camusenak, e... aukeratzen zian garai hartan modan edo ezagunak zien autoreak, mundo maillan, eta itzuli euskerara. Eta gero hori, fotokopiatzen zian itzulpen hoiek eta pasatzen zian beste herrietara. Guri gertatu izan zaigu, gaixo jarri aktore bat eta Azpeitiko taldeko mutilla, hori egiten zuna, ekarri, sustituzio bezela. Zeatikan, ba, karo, kostatu iten zan obra bat euskeratzea eta gero hori, nolabait, eman behar zitzaion lan pixkat hola... horrekin joku pixkat eman. Eta nik uste dot alde hortatik Jarraik, antzerkiaz aparte, lan haundiya in zula.
- Eta zenbat antzerki-talde zeuden garai hartan?
- Hogeita hamabost edo hola, e? Gipuzkuan. Asko. Herri gehienetan zeon antzerki-talde bat. Eta hori...
- Eta denak elkarlanian edo behintzat...?
- Kontakto haundiyakin. Bai. Eta baita ere, alde batetik testuakin lagunduz, baiño baita ere ekartzen zian irakasle batzuk Bartzelonatik igual, hango Kataluniako... antzerki-eskola bat zeon han eta handikan guri kursoak ematea, ikastaroak... Eta igual egiten zan Donostin edo herri baten, ta juntatzen giñan antzezle ezberdiñak, toki ezberdiñetakoak. Asko landu zan hori.

11. Ipuinak saltzen frontoietako jaialdietan

- **Erref**: DON-126/015
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:34:00. **Bukatu**: 00:36:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Jarrai taldean ipuinak ere argitaratu zituzten, euskaraz. Ipuin ezagunak itzuli zituzten; katalanekin elkarlanean. Bertso jaialdietan eta pilota partidetan saltzen zituzten fotokopiak. Taldeko harakinak, Goñik, txuleta bakoitzarekin ipuin bat saltzen zuen. Militantzia.

Transkripzioa
-Eta gero baita’re, aldi berean egiten... Jarrai taldean, egiten ziren ipuiñak euskeraz, Txanogorritxu ta holako, garai hortako ipuiñak.
-Itzuli? Ala sortu ere bai?
-Lehendabizi in zian itzuli ezagunak zirenak. Gazteleraz... gazteleratik hasi zien katalanea pasatzen, eta ordun katalanak, harreman haundia genun katalanekin. Eta ordun katalanak bidali ta, bokadilloak kendu, itzuli, tinta txinakin jarri, fotokopiak egin eta, eta gero frontoieta juten giñen, frontoietan bertsolariak zeuden, Eta bertsolari-jaietan ipuiñak saltzea, edo pelota partiduta, ipuiñak saltzea. Ordun, gure lana zan bukaeziña, o sea,

oso aberatsa zan alde hortatik. Ni oso gaztia nitzan ta, oso ondo tratatzen ninduten, ba umetxo, umetxoa ez, umetxoa baiño, ba ze eukiko nitun hemezortzi-hemeretzi ta, bueno, ta bestek ya bazeuzkaten hogeita hamar, batzuk, berrogei, o sea, ta ordun, asko mimatzen ninduten. Baiñan lana zan… bat genun, harakiña zan, gaztia zan, bere aitan harateiyan lana iten zun, ta parregurea sartzen zitzaigun baiñon egiya da mutill horrek saltzen zun txuleta bakoitzakin ipuin bat. O sea eukitzen zitun han, harateiyan, eta, nik uste det, Grosen zeukaten harateiya, eta nik uste det harek saltzen zula haragi puska bakoitzakin, taka! Norbaiti saltzen ziyon ipuiña. Parrezka eoten giñan. Goñi, oso jatorra. Eta ba hori baiñon, zan militantzia bat, o sea, arlo ezberdiñetan, ez?

12. `Jarrai´ antzerki taldekoen bilerak eta ibilerak

- **Erref**: DON-126/016
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:36:10. **Bukatu**: 00:39:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Jarrai antzerki taldekoak non elkartzen ziren: Beobideren etxea, apaizek utzitako lokalak... Zentsurakoak joaten ziren emanaldietara. Mundua jateko ausardia zuten orduan, ikasketarik izan ez arren; denak ziren beharrezko.

Transkripzioa
- Bueno, Beobiden etxia izaten zan “cuartel general”. Hemen, Parte Zaharrean bizi zan. Eta gero, ba, juntatu? Ba, lokalak uzten zuten apaizak. Atotxan franziskanoak eta… Bai, bazeuden ordun ya mobimentua ya… pentsa, ya gerra geratu zan pixkat atzerago ta animatzen zan jendea. Oaindikan ere gauza asko… guk antzerki-obra ematen genun bakoitzean, emanaldi bakoitzean, zentsurakoak zeuden. Zentsurakoak lehenbiziko asientotan. Nik ez dakit zertaz enteratzen zian edo enteratzen zian bai edo ez, baiñan obra guztiak eraman behar zian zentsura pasatzea. Nik uste det gero trukatzen ziala ta gauzak, ba, han sartzeko ta. Baiña ni gauza hoietan ez nitzan gehiegi… gaztia nintzan eta pixkat alde batera uzten ninduten. Ez? Bueno, pentsatzen det ere responsabilidadea bazala hori egitearekin. Baiñan, ez dakit, nik uste det oso… urrutitik begiratuta, pensatzen det suerte haundia izan dudala holako egoera bat eta denboraldi bat bizitu izana. Hori garai hartan zeon indarra gauzak egiteko, gogoa, mundua jateko. Osea, nik askotan oain entzuten detenian “ya pero eso igual…”, “eziñezkoa da” o “ba… ez dakit ahal deun” edo… Ordun ez genun pensatzen! Ahal genun dena.
- Dena egiteko zegon, ezta?
- Prest. Eta [ez da] esan ere. Oain askoz gehio baloratzen da, nik uste det, “A! honek , karo, unibersidadean ikasi du ta horrek badaki”, “honek ez dakit ze in du ta honek badaki”. Ez, ordun danak genekigun! Ez genekiun iñok ezer, baiño danak siñisten genun beharrezkoak giñela. Eta alde horretatikan oso aberatsa zan. Gure taldean zeuden denetarik: batzuk ikasiak, beste batzuk ez hainbeste ta beste batzuk, ba, lanian aritu dianak gaztetxotatik. Eta jauntatzen… elkartzen gintun gogoak, beharrak…

Zeatikan antzerkia egiten bagenekigun? Hori ikasi iten da. Bestea, ikasi iten da. Eta ausarta izan behar da, ta hori bagiñen; kamikaze batzuk. [Nik ez dakit], askotan gerora hola begira ta esaten dezu: “neurtzen al genun ze arriskuak hartzen genitun?” Ke ba. Ke ba.
- Aurrera.
- “Felicianos”, total. Bai, hala giñen. Baiño, bueno, ondo.

13. Jantziak eta atrezzoa

- **Erref**: DON-126/017
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:39:17. **Bukatu**: 00:41:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Antzezlanetako jantzi dotoreak dantza irakasleari eskatzen zizkion. Andere etxea antzezlana. Jarraikoek adarra jotzen zioten. Merke egiten zituzten antzezlanak, baina beti xehetasunak ondo zainduta. Atrezzoa.

14. Udalaren "Club de Teatro" ekimena; euskarazko beste antzerki taldea

- **Erref**: DON-126/019
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:42:27. **Bukatu**: 00:45:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Udalaren "Club de Teatro" ekintza: igande goizero antzerki emanaldia, Antzoki Zaharrean. Talde bakoitzak hiru hilabetero estreinatu behar zuen lan berri bat. Antzokia bete egiten zen. 12 bat talde ziren; euskarazkoak bi: Maria Dolores Agirreren taldea, Toribio Altzagak-eta sortua. Beste filosofia bat zuten.

15. Donostia, erreferentzia antzerkigintzan

- **Erref**: DON-126/020
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:45:20. **Bukatu**: 00:46:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Zinema
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Donostia erreferentzia bihurtu zen antzerki arloan, Gipuzkoako taldeen akuilua. Garai hartako kultur mugimendu oparoa. Euskal kantagintza berria.

16. Lehenengo antzezlana prestatu zuenekoa

- **Erref**: DON-126/022
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:46:39. **Bukatu**: 00:48:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Sekretaritza ikasten ari zela, akademian antzezlan bat prestatu zuen; 15 urterekin. Entseguak egin zituzten, baina ezin izan zuten estreinatu, mutiletako bat atxilotu egin zutelako ikurrina bat jartzeagatik.

17. Meliton Manzanasen aurrean

- **Erref**: DON-126/024
- **Iraupena**: 0:04:42. **Hasi**: 00:49:20. **Bukatu**: 00:54:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Zinema
- Politika » Politika eta Franco
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:
60eko hamarkadako giro nahasia (manifestazioak...). Lehen Aberri Eguna, Bergaran. Bidai agentzia batean zebilen lanean, eta autobusak hartu zituen hara joateko. Polizia joan zen galdezka, eta Meliton Manzanasengana eraman zuten. Galdeketa.

18. Sei urtean Frantzian errefuxiatuta

- **Erref**: DON-126/026
- **Iraupena**: 0:04:16. **Hasi**: 00:54:08. **Bukatu**: 00:58:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Sei urte eta erdi Frantzian errefuxiatuta egin zituzten senarrak eta berak. Esperientzia aberatsa izan zen hura ere. Zein modu bitxian ezkondu ziren, gurasoak lasai egoteko. Frantsesa bazekien, baina hasiera gogorra.

19. Gerra osteko lehen euskarazko irratsaioa, Paristik

- **Erref**: DON-126/027
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:58:24. **Bukatu**: 01:01:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Parisen euskarako irakasle hasi zen senarra, unibertsitatean, Txillardegik utzi zuenean. Antzerki-talde batean hasi zen bera, Azañaren ilobarekin, eta Buenas noches, España irratsaioan parte hartzea proposatu zion, euskaraz. Pirenaica irratsaioa.

20. Euskal kantagintza berriaren lehen pausoak

- **Erref**: DON-126/028
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 01:01:48. **Bukatu**: 01:05:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Bihurriak rock taldea. Euskal kanta berria, orduko kultur mugimendua, Katalunia erreferentziatzat hartuta. Benito Lertxundi. Bilerak egin zituzten. Lehen emanaldiak.

21. 'Zeruko Argia'ko artikuluak; "La chica ye-ye"

- **Erref**: DON-126/029
- **Iraupena**: 0:03:42. **Hasi**: 01:05:20. **Bukatu**: 01:09:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Lehen jaialdien monotonia haustea erabaki zuten. Zeruko Argia aldizkarian artikuluak idazten zituen musikari buruz. "La chica ye-ye" kantatu zuen berak, euskaraz, gustatu ez arren. Bihurriak rock taldea.

22. Bihurriak rock taldearen ibilbidea

- **Erref**: DON-126/030
- **Iraupena**: 0:04:01. **Hasi**: 01:09:02. **Bukatu**: 01:13:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Bihurriak rock taldea nola sortu zuten, Ez Dok Amairutik aterata. Taldea nola desegin zen. Bi ahizpek kantatzen zuten. Kritikak. Eszenografia berezia.

23. Euskaraz denetik egin zitekeela erakutsi nahi zuten

- **Erref**: DON-126/031
- **Iraupena**: 0:04:06. **Hasi**: 01:13:03. **Bukatu**: 01:17:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Aiako eliz atarian Maizter berria absurduaren antzezlana egin zutenekoa, eskulturagileekin batera. Kritikak. Euskarak denerako balio zuela erakutsi nahi zuten. Durangoko azokak eragiten dion nostalgia, zenbat aurreratu den.

24. Zentsurari beldurrik ez

- **Erref**: DON-127/002
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 00:01:25. **Bukatu**: 00:04:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Ez Dok Amairuko kideek katalanak ekarri zituenean pasa zuten beldur gehien, antzerkia itxiko zutela eta. Antzerki obrak polemikoak aukeratu ohi zituzten, eta antzerkia amaitutakoan debatea.

25. Frantzian pasatako urteak

- **Erref**: DON-127/003
- **Iraupena**: 0:03:58. **Hasi**: 00:04:53. **Bukatu**: 00:08:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Frantzian eman zituen azken urteetan Parisen egon zen, atzerritarrei frantsesa irakasten.

26. Euskarazko filme bikoizlari

- **Erref**: DON-127/005
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:10:48. **Bukatu**: 00:13:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Frantzian semea jaio, eta Euskal Herrira itzuli zen. Bertan bidai agentzia batean hasi zen lanean. Euskal telebista sortzeko talde bat bildu zen, eta euskarara pelikulak bikoizteko lanean hasi zen Arantxa. Gero Antzertin sartu zen, ikasle eta irakasle gisa.

27. Antzertiko kide

- **Erref**: DON-127/007
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:13:50. **Bukatu**: 00:15:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Antzertin, lehen taldeko kide zen Arantxa, eta oso irakasle onak izan zituzten. Ikasle moduan obra bat prestatu zuten, baina diru falta zela eta ezin izan zuten errepresentatu. Hartara, enpresa bat egin zuten, eta euren diruz aurrera atera zuten obra.

28. Antzertiren aztarnarik ez

- **Erref**: DON-127/008
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:15:40. **Bukatu**: 00:18:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Sortu zen antzerki eskolaren berririk ez dago.

29. Aktore asko, baina lanik ez

- **Erref**: DON-127/010
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:19:12. **Bukatu**: 00:21:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Hasiera batean Antzerti antzerki talde ofizial gisa planteatu zen, baina eskola formatua ematea erabaki zuten gero.

30. Hizkuntza aldakorra

- **Erref**: DON-127/013
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:24:38. **Bukatu**: 00:26:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Arantxaren iritziz gaur egun ez da garai batean bezala hitz egiten, dena nahasiago dago, baita euskara ere.

31. Euskararen mugak

- **Erref**: DON-127/015
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:28:55. **Bukatu**: 00:31:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Arantxaren iritziz ez dago euskara hobe edo eredugarririk. Azpeitia aldean sumatzen du euskara aldatzen hasten dela.

32. Hondartza udan, Urgull neguan

- **Erref**: DON-127/017
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:32:41. **Bukatu**: 00:35:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza

Laburpena:
Gaztetan egindako ibilerak ditu Arantxak hizpide pasarte honetan.

33. "Jostailuak asmatzen genituen"

- **Erref**: DON-127/019
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:36:34. **Bukatu**: 00:40:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Kalean ibiltzen ziren umeak beti jolasean. Askotan, jostailu faltak, hauek asmatu egiten zituzten.

34. Amak kantatutako abestiak

- **Erref**: DON-127/021
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:41:11. **Bukatu**: 00:42:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
"Xagu txiki, xagu maite" eta "Haurtxo txikia sehaskan dago" abestiak.

35. Gabonetako erronda

- **Erref**: DON-127/023
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:42:23. **Bukatu**: 00:43:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:
Elkartez elkarte ibiltzen ziren Arantxa eta anai-arrebak kantuan.

36. San Juan gaua

- **Erref**: DON-127/025
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:46:53. **Bukatu**: 00:50:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:
Betidanik ezagutu du Arantxak Konstituzio plazan zuhaitza erre eta haren inguruan dantzatzeko ohitura.

37. San Sebastian eguna

- **Erref**: DON-127/027
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:53:28. **Bukatu**: 00:55:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Gaur egun danborra jotzen ateratzen da Arantxa San Sebastian egunean.

38. "Servicio Social" eta bertan ikasitakoa

- **Erref**: DON-127/029
- **Iraupena**: 0:05:02. **Hasi**: 00:56:16. **Bukatu**: 01:01:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Emakumeek "servicio social" zelakoa egin behar zuten. Ingalaterrara joateko pasaportea bertan egin behar zuen, eta joan ondoren egingo zuela adostu zuten, baina eskari handiegiagatik ez zen sartu.

39. Servicio Socialeko azterketa

- **Erref**: DON-127/030
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 01:01:18. **Bukatu**: 01:03:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Bordatzen zekiela erakutsi eta haurren heziketaren inguruan galderak egin ondoren, azterketa gainditu eta txartela eman zioten. Txartel hau hamaika gauzatarako izaten zen beharrezkoa.

40. Emakumeen aldeko borroka

- **Erref**: DON-127/031
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 01:03:43. **Bukatu**: 01:06:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Emakumeen elkarte bat sortu zuten Donostian, feminismoaren hasiera moduan. Urte gutxitan gauza asko aldatu direla ikusi du Arantxak.

41. Emakumeek boto eskubiderik ez

- **Erref**: DON-127/033
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 01:09:01. **Bukatu**: 01:11:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Hauteskundeak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Boto eskubidea lortu zutenean, jende askoren pentsamoldea oraindik ez zen aldatu. Ezkondutakoan ere oso ohikoa zen emakumeek lana uztea, ezta kontrakoa ez zegoen ongi ikusita.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-23

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com